

## MONDRAGON UNIBERTSITATEAK errektore berria aukeratu du

2014/09/09

Maiatzaren bukaeran, Iosu Zabala formalki jakinarazi zuen Mondragon Unibertsitateko errektore ardurak utziko zituela, bere bigarren agintaldia bukatzerakoan eta zortzi urtez karguan aritu ondoren.

Erabaki honen ondorioz, MONDRAGON UNIBERTSITATEko Kontseilu Errektoreak, bere ondorengoaren aukeraketarako zehaztuta dagoen prozedura abian jarri zuen, egungo errektorearen eta berriaren bizikidetzaren epe bat egon dadin.

Prozesuak dituen pausoak bete ondoren, atzo, irailak 8, MONDRAGON UNIBERTSITATEko Kontseilu Errektorearen ez-ohiko bileran, eta behin lehendakariaren txostena eta proposamena entzun ondoren, aho batez onartu zen Vicente Atxa, gaur egun, Mondragon Goi Eskola Politeknikoko zuzendaria dena, 2015eko urtarriletik aurrera, MONDRAGON UNIBERTSITATEko errektore berri izendatzea.

